

Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak

Irakurri arreta handiz taulan ageri diren datuak. Haur eta lehen hezkuntzan matrikulatu diren atzerriko ikasleen ehunekoak jasotzen dira bertan. Datuok honako txostenean kopiatuta daude: "Eskola eta unibertsitate jarduera" eta hemen eskura ditzakezu:

http://www.eustat.es/estadisticas/idioma_c/tema_300/opt_0/tipo_3/temas.html (Taula berdin bat edo eguneratua aurkituko duzu)

❖ Datuak aztertu baino lehen autonomia erkidego guztien batezbestekoak kalkula ditzazun gomendatzen dizugu. Haur eta Lehen Hezkuntzan.

❖ Ondoren, idatzi zein diren hezkuntza etapa bakoitzean batezbestekotik gora eta behera dauden erkidegoak.

❖ Kalkulatu banaketa horietako bakoitzaren mediana eta kuartilak.

❖ Orain ordena itzazu autonomia erkidegoak horien kuartilen arabera.

	HAUR HEZKUNTZA	DBH
ANDALUZIA	4,1	5,4
ARAGOI	9,0	10,5
ASTURIAS	2,6	4,6
BALEARRAK	10,7	14,6
KANARIAK	5,5	9,7
KANTABRIA	3,6	6,9
GAZTELA ETA LEON	6,0	6,2
GAZTELA-MANTXA	6,9	7,0
KATALUNIA	8,4	13,5
VALENTZIAKO E.	7,5	13,0
EXTREMADURA	2,8	2,3
GALIZIA	1,9	3,1
MADRILGO E.	9,2	14,0
MURTZIA	9,3	11,7
NAFARROAKO FK	6,6	10,6
EUSKAL AE	3,4	5,6
ERRIOXA	12,7	13,1
CEUTA	0,9	1,0
MELILLA	4,8	4,5
BATEZBESTEKOAK

